Usurbilgo Udala

Esp.zk.: ID.05/2022-0160

PROZEDURA IREKI BIDEZKO HORNIDURA KONTRATURAKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

ETXEKO HONDAKIN BEREZIAK ETA ASIMILAGARRIAK BILTZEKO GARBIGUNE MUGIKORRAREN HORNIDURA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

1.- KONTRATUAREN HELBURUA

Usurbilgo Udalarekin egindako kontratuaren xedea da etxeko hondakin bereziak eta asimilagarriak biltzeko garbigune mugikor bat izango denaren txasisaz hornitzea, plegu arautzaile honetan jasotako irismenaren eta baldintza teknikoen arabera.

Kontratu honek gutxienez barne hartu beharko ditu:

- Garbigune mugikorraren Txasisa.
- Txasisaren barne antolaketarako beharrezkoa izango den materiala: Hondakin bereziak biltzeko konpartimenduak/edukiontziak/bandejak, etab eta hauek eusteko egiturak (behar diren kasuetan).

Garbigune mugikorraren helburua etxeko hondakin bereziak eta asimilagarriak bildu, biltegiratu eta garraiatzea da. Garbigune Mugikorrari esker, herritarrak **errazago eta hurbilago** izango du Garbigunearen zerbitzua; izan ere, herritarrak ez du Usurbilgo Garbiguneraino desplazatu beharko bere tamaina ertaineko hondakinak botatzeko. Garbigune mugikorra irisgarria izango da, astero herriko auzo desberdin batean kokatuko da (leku estrategikoan) eta modu horretan, usurbildar guztiek hondakin bereziak behar bezala kudeatzeko aukera izango dute, Atalluko garbiguneraino ibilgailuz gutxiago desplazatu behar izango dutelarik.

Udalak erosiko duen garbigune mugikorra, hondakinen bilketa zerbitzu publikoari atxikita geratuko da, jabari publikoko ondasun gisa.

2.- KONTRATU MOTA

Kontratua hornidura-kontratua da.

3.- GARBIGUNE MUGIKOR KOPURUA

Etxeko hondakin bereziak eta asimilagarriak biltzeko garbigune mugikor bat.

4.- GARBIGUNE MUGIKORRAREN XEHETASUN TEKNIKOAK

Hornidura kontratu honetan aurreikusitako garbigune mugikorrak ezaugarri eta baldintza tekniko hauek bete beharko ditu:

- Garbigune mugikorraren egitura metalikoa izango da, material herdoilezinezkoa.
- Garbigune mugikorra sendoa izango da, ekintza bandalikoei, arpilatze-saiakerei, eguraldi txarrari eta abarri aurre egiteko modukoa.
- Garbigune mugikorrak **ezingo du 750Kg baino gehiagoko karga hartu** (baimendutako gehieneko pisua), atoi arina izan beharko du eta **berau gidatzeko ez da "E" motako**

gidabaimenik beharko.

- Garbigune mugikorraren egitura osoaren dimentsioa, beherago aipatuko diren **10 hondakin-mota guztiak jaso eta biltegiratzea baimentzen duena** izan beharko da, betiere atoi arina baldintza bermatuz. 10 frakzio dimentsioen adibidea: 2340 x 1575 x 1410 mm.
- Garbigune mugikorra 10 hondakin-mota desberdin jasotzeko “ahoak” edo zuloak izan beharko ditu. Hondakin mota bakoitzak hondakinak sartzeko aho bat, bi edo gehienez hiru izango ditu.
- Hondakinak sartzeko ahoak/zuloak hondakinak zailtasunik gabe sartzeko bezain handiak izango dira.
- Hondakinak sartzeko aho/zuloak zabalik egongo dira (tapa/itxiturarik gabe) bi hondakin motetarako izan ezik: RAEE hondakinak eta aparailu elektriko/elektroniko txikiak; hauetan, hondakinak sartzeko ahoek/zuloek hondakinak bota ondoren aho/zulo horretatik atera ezin dela ziurtatzen duen sistema bat izango dute, bertan dagoen hondakin elektriko/elektronikoa lapurtzeko arriskua saihesteko
- Hondakinak sartzeko ahoen/zuloen diseinuak behar besteko bermea izango du gerta daitezkeen istripu-arriskuei aurre egiteko, adibidez ebaketak, golpeak etab.
- Garbigune mugikorrean jasoko diren 10 hondakin-motak jaso eta biltzeko **120L-ko sei gurpildun kubo**, **gutxienez 40-60L-ko edukiera duten bi bandeja industrial**, bonbila fluoreszenteak jasotzeko **kanaleta bat** eta pilak jasotzeko **buzoi bat** izan beharko ditu gutxienez**.** Hondakinak biltzeko erabiliko diren kubo, bandeja industrial, kanaleta eta buzoien tamaina eta konfigurazio desberdinak onartuko dira betiere, aukeratzen diren kubo/bandeja tamainek guztira 750Kg gainditzen ez badute eta atoi arina izatea bermatzen badute**.**
- Hauek dira garbigune horretan biltzea aurreikusten diren hondakin-motak:
  1. Margoak, barnizak, disolbatzaileak (aguarras), kolak, fitosanitarioak, (Intsektizidad/herbizidad), aerosolak eta horien ontziak (beteak, erdi beteak edo hutsak)
  2. Bolumen txikiko plastikozko ontziak eta buztinezko lorontziak
  3. Pilak
  4. Tamaina txikiko txatarra (lapikoak, zartaginak, metalezko erretiluak, etab.)
  5. Material informatikoak
  6. Fluoreszente-bonbilak
  7. Etxetresna, aparailu eta jostailu elektriko/elektroniko txikiak
  8. inprimagailuen tinta-kartutxoak eta tonerrak
  9. Apurtutako plastikozko eta egurrezko jostailuak
  10. Berrerabiltzeko jostailu eta jolasak.
- Hondakinak biltzeko erabiliko diren kuboak, bandejak, kanaletak eta buzoiak eskuz deskargatu ahal izango dira eta ondorioz, kubo nahiz bandejak modu errazean eta erosoan ateratzeko moduan egongo dira antolatuta garbigune mugikor barruan.
- Hondakin-mota bakoitza kolore batez, hondakinaren izenez bi hizkuntzetan (euskeraz lehentasunez eta nabarmenago ikusiko delarik) eta hondakin-mota horri dagokion adibide batzuen argazkiez lagunduta joan beharko da, herritarrari begi bistaz bereizketa errazagoa egiteko. Etorkizunean hondakin-mota aldatu ahal izateko aukera ere izan beharko du.
- Garbigune mugikorra auzo bakoitzean noiz, non eta zein ordutegitan egongo den adieraziko duen **informazioa ezartzeko espazioa izan beharko du**, 80cm (luzeera) x 60cm (altuera)-koa.
- Garbigune mugikorrak hondakinekin erlazionaturiko **informazio puntuala jarri ahal izateko espazioa** izan beharko du. Espazio horren dimentsio minimoa 297 x 420 mm-koa (din A3 tamaina) izango da.

- Garbigune mugikorraren desplazamendurako Usurbilgo brigadaren ibilgailuak erabiliko ditu Usurbilgo Udalak. Hori horrela, Garbigune mugikorrak atoi bola bidez lotu eta garraiatzeko aukera izan behar du

Honako hauek ere bete beharko ditu garbigune mugikorrak:

Txasisa

ATALA	DESKRIBAPENA
Materialen kalitate eta sendotasuna	Material herdoilezina, sendoa eta pisu gutxikoa izaten beharko da
Txasisaren diseinua prestazioak eta akaberak	Barne diseinua: garbitzeko erraza. Kanpo diseinua: 10 hondakin mota ezberdin jasotzeko diseinatua. Hondakin bakoitza kolore batez, izena errotulatua eta hondakinen adibideak dituen argazkiez adierazita egoten beharko da
Irisgarritasuna	Hondakinak botatzeko zuloak irisgarriak izan beharko dira.
Segurtasun eta seinaleztapena	Kontusio edo ebaketak eragin ditzaketen txasiseko elementuen babes elementuak izan behar dituzte eta hauek seinaleztatuta egongo dira
Gidatzeko/ segurtasunerako laguntzak	Inertzia-balazta izango du.

Barne antolaketa, hondakin bereziak biltzeko konpartimenduak/edukiontziak/bandejak, etab... eta hauek eusteko egiturak (behar diren kasuetan)

10 hondakin-mota desberdin jasotzeko konpartimentuak ahalik eta modu egokienean, barne espazioa ahalik eta gehien aprobetxatzen dituen proposamena baloratuko da. Bestalde, hondakinak biltzeko edukiontzi, kutxa, bandeja, etab. erraz garbitzeko eta ordezkatzeko modukoak izan beharko dira.

ATALA	DESKRIBAPENA
12X120L-ko edukiontziak	Neurriak 960x485x550 mm
4x40-60 l-ko bandejak	Gutxieneko neurriak: 600x400x220 mm
2 PVC kanaleta	Gutxieneko neurriak: 125cm x 25 cm
1 Buzoi	Gutxieneko neurriak: 45x55x10 cm

5.- BESTELAKO BALDINTZAK

Garbigunea entregatzeko unean, homologatua egongo da, eta errepidean ibiltzeko behar diren tramite guztiak indarrean. Halaber, barrua goian zerrendatutako kaxa, edukiontzi eta buzoiaz ekipatua, serigrafiatua eta berehala erabiltzeko moduan egongo da.

Enpresa esleipendunak honako betebehar hauek izango ditu garbigune mugikorrari dagokienez:

- Garbigune mugikorraren garraioa egitea, Usurbilgo Udalak Atallun duen instalazioetara.
- Garbigune mugikorra konpontzea matxurengatik, mailaketengatik (*abolladuras*), ekintza bandalikoengatik edo beste edozein arrazoirengatik Udalak hala eskatzen duenean.

6.- ENTREGA, PROBAK, HORNIDURA JASOTZEA ETA BERME-EPEA.

Entregatzeko lekua: Garbigune mugikorraren ekipamendu osoa, dokumentazio osoarekin batera (matrikulazioa, fitxa teknikoa, bermea, etab.), Usurbilgo brigadaren Atalluko instalazioetan entregatuko da.

Entregatzeko epea: Garbigune mugikorra gehienez, **120 egun** naturalekoa izango da, kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Garbigunea binilatua eta beharrezko dituen ekipamendu guztiekin entregatuko da.

Mugitzeko erabiliko den ibilgailuaren matrikula ere ezarria izan beharko du.

Entrega ez da egintzat joko ekipoak jaso arte.

Probak: Garbigune mugikorra Usurbilgo brigadako biltegira eramango da eta Usurbilgo Udal teknikaria eta brigadako arduraduna joango dira garbigune mugikorreko ekipamenduak ikuskatzera.

Udaleko teknikariak proba hauek egingo dituzte:

- Ikuskapen bisuala eta gainazalaren kalitatearen azterketa: elementuen aurkezpenaren eta akaberen behaketa, egokia izan beharko duena.
- Eskatutako eta eskainitako baldintza tekniko guztiak betetzen direla egiaztatzea.
- Garbigunea Usurbilgo brigadak duen ibilgailura lotuko da eta elementu biak martxan jarrita alde batetik bestera ibiliko dira, mugimentu frogak egiten.
- Matrikulazioa, segurtasuna eta abar egiaztatzeko dokumentazioa ikuskatzea.
- Ekipoaren funtzionamendu orokorra egiaztatzea.

Harrera: Goian aipatutako probak amaitu ondoren egingo da harrera. Emaitzak onak badira, Usurbilgo Udalarentzako hornidura jasotzat joko da eta bermea momentu horretatik aurrera kontabilizatzen hasiko da.

Berme-epea: Eskatzen den **gutxieneko berme-epea bi urtekoa izango da**, jasotzen denetik kontatzen hasita.

Berme-epea (bere kasuan, luzatutakoa) bete arte, hornitzailea izango da entregatutako ondasun edo produktuen erantzule, eta ez du salbuetsiko harrera-aktan inolako ohar edo desadostasunik ez agertzea, begiratu batean berehala antzeman daitezkeen akats, akats edo anomaliak izan ezik.

Berme aldian zehar, hornitutako ondasunetan akatsak eta inperfekzioak daudela egiaztatzen bada, hornitzaileari eskatuko zaio desegokiak diren ondasunak birjartzeko, edo, hala badagokio, ondasun horiek konpontzeko, betiere, konpondutako ondasunaren eta inolako eragozpenik egin ez zaien hornitutako ondasunen arteko baliokidetasuna bermatzen bada.

Esp.zk.: ID.05/2022-0160

Berme-epea luzatzea baloratzen da, balorazio-irizpideei dagokien atalean islatzen den bezala.